

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI JARDUNALDIK

Gaur ariko dira, Ertamerikako emakumeak

Atzoko Kronikan akatsa egin zen; gaur egingo da, eta ez atzo, 'Emakume defendatzaileak gure bizitza eta lurraldeak zaintzen' jardunaldia, 17:00etan hasita, Biterin.

GAUR arratsaldeko 17:00etan izango da *Emakume defendatzaileak gure bizitza eta lurraldeak zaintzen* jardunaldia, Biterin, eta ez atzo, atzoko Kronikak zioen bezala.

Asteazkenean hasi ziren aipatutako jardunaldiak, eta gaur Biterin ariko dira Txipapas eta Ertamerikatik etorritako sei emakume hizlari. Landuko diren bi gaietatik aurrenekoa izango da Indarkeriei aurre egiten: gure lurralde-luraren kontra eta gure lurralde-gorputzaren kontra erasoak, eta parte hartuko dute Txipapasko Irma Vázquez, Hondurasko Michelle Carbajal eta El Salvadorrek Marixela Ramosek. Bigarrenean, berriz, El Salvadorrek Zuleyma Arauz, eta Guatemalako Lolita Chavez ariko dira *Lurraldearen defentsarako aliantza feministak* hizpide hartuta. ■



Mario Minera eta Claudia Vázquez, asteazkeneko hitzaldian.

■ UDALA PENTSA OHARRA

Nola aurreztu argindarra saioa, asteartean

Datorren asteartean, bigarren aldiz, argindarra aurrezteko eta honen kontsumoa kontrolatzeko saio praktikoa eskainiko da. Gaurkoa da izena emateko azken eguna.

ARGINDARRAREN kontsumoen informazio egokia eskuratu eta kontrolatzeko saio praktikoa eskainiko da datorren asteartean. «Herritarrok, etxebizitzetan, eta dendariak, negozioetan, badugu gure elektrizitate-kontsumoa ezagutzeko eskubidea», adierazi du Udalak.

Joan zen udaberrian, oso harrera ona izan zuen saio praktikoa honek. Hori dela eta,

bigarren saioa egitea proposatu du Udalak, Foru Aldundiarekin elkarlanean.

Izena emateko azken eguna, gaur

Saio praktikoa hauetan parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, eta gaur da horretarako azken eguna.

Aurrez aurreko saioez gain, gai honi buruzko bideo-tuto-

rialak ere aurkitu daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiko Gipuzkoa Argitu programaren baitan. Bideo tutorial hauek gain, informazio erabilgarria dago, baita energiaren gida ere.

Beste ikastaro bat, lehen aldiz Hernanin

Hilaren 25ean, beste ikastaro bat eskainiko da aurrenekoz; *Etxebizitzetan energia berriz-*

tagarriak ezartzeko saio praktikoa hain zuzen. Arratsaldeko 18:00etan izango da Biterin.

Izena emateko moduak

Batean zein bestean izena eman daiteke Oihane@izadi21.eus posta elektronikora idatziz, edo telefono honetara deituz: 686 427 565 (astelehenetik ostiralera, goizeko 08:00etatik 16:00etara). ■

■ HERNANI ODOLA

44 estrakzio, hil honetan

Asteartean izan zen odola emateko zita, azaroko lehenengo asteartearekin eta 44 estrakzio izan ziren. Ez zen emaile berriak izan, ezta organo emaileak ere. ■

■ HERNANI MENDIZALE ASTEA

Dominak gaur, gaztetxoek

Mendizale Astea borobiltzeko, proiektio berezia egingo da gaur Biterin, 18:00etan, gaztetxoek irteerak ikusteko, eta dominak banatuko zaizkie gero. Argazki lehiaketako sariak ere banatuko dira. Bukatzeko, bazkidearen eguna egingo da hilaren 17an. ■

■ HERNANI ZINEA

Kathmandu eta New York, pantailan

Helduentzako *A Rainy Day in New York* jarriko dute Biterin asteburuan, gaur 22:30etan hasita. Umeentzat *Mission Kathmandu* jarriko dute bihar eta etzi 16:30etan. ■

■ GOIZUETA TAILERRA

Dakienak ez dakienari, gaur

Dakienak ez dakienari erakutsi tailerren barruan, gaur izanen da bigarrena. Berrerabiltze, berreskuratze nahiz zaharbertze tailer irekia eskolako jangela izanen da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. ■

■ HERNANI KONTRAKANTXA

Jam Session gaur, Gaztetxean

Gaur gaueko 22:00etatik aurrera, Jam Session antolatuko da Gaztetxean. Lehenik mikro irekia egongo da, jendeak aurretik entsaiatutako piezekin, ondoren Jam Session, «inprobisatzeko momentua». ■

■ HERNANI PRESOK

Plazatik abiatuta buelta, senideek

Hileko bigarren ostirala denez, enkartelada deitu dute preso eta iheslarien senide eta lagunetik. Plazatik aterako dira 20:00etan. ■

Nekane
Centro de belleza y bienestar

Antzola 4
Tel.: 943 24 32 53

www.centrodebellezaneekane.com

ZURE LASER ZENTROA
Doako diagnostikoa!

LASER PLATAFORMA
Laser Alejandrita
LightSheer® DESIRE™ diodoa

- 20 urtetako esperientzia dugu depilaziorako laser teknologian lider mundiala den teknologian.
- Mink gabea.

Probatu dezazun, ate irekiak antolatuta ditugu AZAROAREN 11tik 16ra.
Informazio gehiagorako:
943 24 32 53 edo 688 605 849

GNOMOS

PAPER DENDA

Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

ESPECIALISTAS EN MARISCOS
MARISCOS HERNANI

Javier Juanisti
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

ZINKOENEA KIOSKOA

943 334 377
688 694 034

ZinkoeneaKioskoa@gmail.com
Zinkoenea 1/g Hernani Gipuzkoa 20120

EGURALDIA
GAUR

Zaparrada mardulak botako ditu, eta zakar ibiliko da haizea. Ekaitzak jo eta kazkabarra ere bota dezake. Elur-maila 1.000m inguruan ibiliko da. Tenperaturak ere behera egingo du. **Min.7° / Max.11°**

BIHAR

Euria egiten jarraituko du, baina zaparradak ez dira hain mardulak izango. Litekeena da arratsaldean atertzera egitea. Elur-maila 1.300 metro-ra igoko da, eta kokxa bat epelduko da giroa. **Min.9° / Max.13°**

(euskalnet)

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



■ HERNANI INAUTERIAK

2020ko inauterietako kartel lehiaketaren arauak, finkatuak

Abian da datozen inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa, eta dagoeneko finkatu dira denek errespetatu beharreko oinarritzko arauak.

BESTE urte batez, abian da datorren urteko inauteriak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa. Urtero bezala, lehiaketa nahi duenak parte hartu dezakeela jakinarazi du Udalak.

Abenduaren 9a izango da proposamenak aurkezteko azken eguna, eta formatu digitalen entregatu beharko dira derrigorrez.

Irabazleak, 600 euroko saria Lehenen hautaketa Jai Batzordean egingo da eta ondoren, herritarrek emango dute euren bozka.

Sari bakarria izango da, 600 euro eskuratuko ditu lehiaketa irabazten duenak; 300 euro Hernaniko Berriak elkarte dendetan erabiltzeko izango dira, eta gainontzekoa transferentzia bidez emango da. **■**

LEHIAKETARAKO KONTUAN IZAN BEHARREKO DATAK

Abenduak 9, 14:00ak bitarte. Proposamenak jasotzeko azken eguna.

Abenduak 11-26, herritarren bozka jasotzeko epea: online eta Biteri kultur etxean.

Abenduak 31, bozka gehien jaso dituen kartela zein den jakinaraziko da.

■ HERNANI LANBIDE HEZIKETA

Bizikleta zaharrak, Wukrorako

Hernaniko Lanbide Heziketak bizikleta zaharrak biltzeko eskaera luzatu nahi die herritarrei, haiek zaharberritu eta Wukrora bidaltzeko asmotan.

URTEAK dira Hernaniko Lanbide Heziketako zentroa Wukroko Lanbide Eskolarekin elkarlanean dabilela.

Aurtengo proiektuaren helburua, eskolan bertan bizikleta zaharrak zaharberritu eta Etiopiar bidaltzea da. Horretarako, Hernani eta inguruetako herritarrei eskaera luzatu nahi die ikasleek, etxean gordeta eta erabilerarik ematen ez zaien bizikleta zaharrak eskolara eramateko.

Erabiltzeko moduan dau den tamaina guztietako bizi-



Hernaniko Oinarritzko Lanbide Heziketako ikasleek zaharberrituko dituzte.

kletak jasoko dituzte, urte gut-tian zehar baina lehenbailehen eramatea eskertzen dute. Be-

raz, edozein momentutan eraman daitezke bizikletak zen-trora eta atezainari galdetu. **■**

■ HERNANI 54KO KINTOAK



Aurrenekoz elkartu ziren 54an jaiotakoak.

Berriro elkartzeko asmotan, 54an jaiotakoak

Aurreneko aldia izan dute 54an jaiotakoek elkartzen zirela, eta ez da azkena izango. "Pena, lehenago ez hasi izana!", diote. Sorpresa politak ere izan dituzte; ustez elkar ezagutzen ez zutenak elkartu eta seme-alabak eskolan elkarrekin ibili direla konturatzean, esaterako. Gauzak horrela, errepikatzeotan geratu dira. **■**

■ HERNANI MUSIKA

Santa Zeziliako kontzertua, Bandak

Musikarien eguna dela eta, Hernaniko Musika Bandak azaroaren 16an kontzertua eskainiko du udaletxeko arkupetan, arratsaldeko 17:30etan.

SANTA zezilia eguna ospatze-ko, Hernaniko Musika Bandak kontzertua emango du azaroaren 16an, arratsaldeko 17:30etan udaletxeko arkupeetan.

8 kide berri, aurten

Iaz 9 gazte hasi ziren banda-rekin elkarlanean, eta ikas-turte honetan 8 musika-ikas-le gehiagoren lankidetzaz izango du Bandak. Andoain, Donostia, Hernani eta inguru-ko neska-mutilak dira eta 14-

16 urte bitarte dituzte. Gehi-enek Donostian egin dituzte musika ikasketak eta beren «musika maila hobetzeko» irrikitan daude.

Musikarien eguna ospatze-ko eskaintzen duten kontzertua, Bandarentzat urteko kontzertu garrantzitsuenak dela azaldu dute, eta hortaz, emanaldi hori baliatu nahi dute kide berriei eta baita be-tiko entzuleei Bandaren eske-rrik onenak adierazteko. **■**

■ ASTIGARRAGA PELOTA

Astigarragan gaur, bi partidua

Asteburuko jardunaldiak gaur emango diete hasiera pelotariak. Eskuz, Mujika eta Insausti II jubenil hermaniarak Astigarragan ariko dira gaur, 19:30etan. Palan, nagusien mailako neskek Intxurre eta Aia izango dituzte aurkari, 20:00etan, etxean, eta jubenilek Intxurre, 18:30etan Ikaztegiatan. Astigarrarrek, berriz, etxean jokatu dute gaur, 19:00etan hasita, Tolosaren aurka ariko dira Mundarroko mutil kadeteak. **■**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† FELISA AGUINAGA BEGUIRISTAIN
(Evaristo Guembelzuren alarguna)
Herenegun hil zen, 94 urte zituela
- Goian Bego -
Seme-alabak: Amaia eta Laxa Mujika, Jone eta Patri Mujika, Itziar eta Joxe Mari Patxe; bilobak: Iker eta Garazi, Iñigo, Ainara eta Aritz, Jon, Saioa; ezkon ahipak, ilobak, lehengusuak, gainerako ahaideek eta zaintzailea: Nely.
Haren animaren alde otituz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, **Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2019ko azaroaren 8an
Helbidea: Martindegi auzoa
OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:30ak arte.

† FELISA AGUINAGA BEGUIRISTAIN
(Evaristo Guembelzuren alarguna)
- Goian Bego -
Tabla-Eneako txokora etorri zinen bizitzera ta bertan pozik izan gara zurekin izeba. Muxu handi bat
MARTINDEGIKO FAMILIA
Hernanin, 2019ko azaroaren 8an

IRAGARKI MERKEAK

Salgai Audi A4 1.9 TDI, 5 atekoa eta 2003 urtekoa. 251.000 km ditu eta ITVa eta errebisioak eguneratuta. Egoera onean. 3.500 €. **Deitu: 638 756 854**

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko.
Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**